


ALTZARIAK JASOTZEKO ZERBITZU BERRIA



943-34 13 45

Dei gaitzazu **8:00etatik 15:00etara** eta jasotzeko hitzordua zehaztuko dugu.



- Errenteriako Udalak, herria txukun eta osasungarria mantentzeko asmoz, doako zerbitzu berria jarri du martxan altzariak eta antzeko etxe-hondakin handiak biltzeko. Nahikoa da telefono zenbaki batera deitzea eta bilketarako eguna eta ordua hitzartzea, zerbitzuko langileek jaso ditzaten birziklatu nahi dituzun trasteak. Bilketa guneak etxe-ataritik ahalik eta hurbilen ezarriko dira, beti ere kamioneta egoki ibiltzea bermatuz.
- Nabarmentzekoa da orain arteko garbigune sareak erabilgarri jarraitzen duela eta zuk zeuk hara eraman ditzakezula traste zaharrak, hala nahi izanez gero.
- Modu berean, gogoratu behar da autonomoek eta enpresek sortutako hondakinak eta obra-hondakinak ere gune berezitueta bota behar direla.

Zerbitzuko langileek

BAI jasoko dituzte:

Altzariak: mahaiak, armairuak, sofak...

Koltxoak eta somierrak.

Lerro zuriko etxetresna elektrikoak: hozkailuak, arropa garbigailuak, mikrouhin-labea ...

Lerro gris-marroiko etxe tresna elektrikoak: telebistak, ordenagailuak, dvd irakurgailuak...

Zerbitzuko langileek

EZ dituzte jasoko:

Pneumatiko zaharrak, pintura poteak, obra hondakinak, olioak, pilak, bateriak eta abar.

Material horiek ohiko garbiguneetara edo datozen hilabeteetan abian jarriko diren garbigune mugikorretara eraman beharko dituzu.



ingurumena.errenteria.eus

